



10. IBILBIDEA Atxondon zehar

FITXA TEKNIKOA



ZAILTASUN MAILA

Erreza



IRTEERA

Durango



HELMUGA

Durango



DISTANTZIA

30 km



IGOERA METATUA

493 m



IRAUPENA

2 ordu 15'


IBILBIDEA Durango – Abadiño – Mendiola – Sagasta – Axpe – Arrazola – Apatamonasterio – Gaztelua – Astola – Durango.

ZAILTASUNA Ez da gogorra, ez teknikoki ez fisikoki.

ZORU MOTA % 75 porlana edota asfaltoa eta % 25 mendi pista.

OHARRAK Ibilbide aproposa BTT-n hasten direnentzat, ia dena pista garbia delako eta hainbat aukera ematen dituelako (mozteko, luzatzeko...).

PERFILA





10. IBILBIDEA Atxondón zehar

DESKRIDAPENA

Ibilbide honek Axpeko inguru natural ikusgarrira hurbiltzen gaitu eta paisaia paregabe honekin gozatzeko aukera ematen digu.

Ibilbidea Durangon hasiko dugu. Uribarriko Andra Maria Basilikatik abiatuta, Ibaizabal Ikastolaraino joango gara.

Hor, Ikastola atzean utziz, aldapa gogor bat igoko dugu Artasola auzorantz. Jarraian (2,2 Km), eskumatara hartuko dugu BI-632arekin paralelo doan bide estu batetik. Abadiñoko txaletetara helduko gara eta, horiek goialdetik zeharkatu, lantegi batera (3,8 Km) iritsi eta gorantz hartuko dugu erromatar bidetik. Horri jarraituz, Mendiolako bidea (4,5 Km) topatuko dugu.

Hortik eskumatara, gorantz joko dugu. BI-4335 errepidetik Mendiola pasatu eta hurrengo bidegurutzean, ezkerretara hartuko dugu Sagastarantz, eta igotzen hasiko gara. Sagastan iturria dago, ura hartzeko aukera.

Sagastako bidegurutzetik, eskumako pistatik, gora egingo dugu 9,3. Km-raino. Jarraian, jaitsiera azkar eta arriskutsua dago Axpera iristeko. Axpen, frontoi ondotik, eskumako pistatik joko dugu Arrazolarantz. Beheko errepidera iristean, eskumatara hartuko dugu eta Arrazolaraino igoko gara (bidea amaitu arte).

Ondoren, bide beretik jaitsiko gara Apatamonasterioraino. Aurrerago, bidegurutzera heltzean, eskumatara egingo dugu BI-632 errepidetik Elorriorantz, baina 200 m-ra errepide nagusi hori utzi eta ezkerretarantz egingo dugu autoak desegiteko leku baten albotik. Pista hau 19,8. Km-an hartuko dugu eta ia bi kilometro gorantz egin behar dugu (aldapa gogorrenak hasierakoak dira).

Kontuz, 21. km-ra iritsi orduko, ezkerreko pistatik gora hartu behar dugu. 21,7. Km-an beherantz egingo dugu, ia 24. Km-raino. Hor, Gaztelura daraman bidera irtengo gara.

Gorantz egingo dugu pista horretatik Gaztelura heldu arte. Hortik aurrera dena da beherantz asfaltozko bidetik. Jaitsiera hori bukatzean, BI-3323 errepidearekin bat egingo dugu. Jarraian, ezkerretara egin metro gutxi batzuk eta, ondoren, eskumatara dagoen zubitxotik Abadiñoko futbol zelaira helduko gara. Hor, eskumatara dagoen bidegorritik Durangora helduko gara.



RUTAS BTT

10. IBILBIDEA Atxondon zehar

MAPA

